



Barnetegira joango gara

Urtarrilak 18

Eguneroko maitea:

Badakizu zer? Datorren astelehenean barnetegi batera joango gara eskolatik. Orain arte inoiz ez naiz barnetegi batera joan, eta pixka bat urduri nago.

Irakasleak gaur esan digu zer eraman behar dugun, eta zer egingo dugun han. Jakin nahi duzu? Oraitxe kontatuko dizut, ba.

Astelehenean 9:30ean autobusa hartuko dugu. Baina esan digute pixka bat lehenago egoteko eskolako sarreran, 9:15 aldera. Guztiok elkartuko gara han, gure maleta eta guzti. Maletan arropaz gain, lo-zakua ere eraman behar dugu. Eta nik lotarako panpina bat ere eramango dut, baina oraindik ez dut erabaki zein eraman, esan digutelako oso handia ez izateko. Seguruenik Pontxi untxia eramango dut, ez baita oso handia.

Autobusean ordu bat edo ordu bat eta laurden egon eta gero, Lurraskako Baserri eskolara iritsiko gara. Imajinatzen dut lehenengo etxea ezagutuko dugula eta arauak zeintzuk diren esango digutela.

Irakasleak esan digu Lurraskan hainbat gauza landuko ditugula. Batetik baserrian dauden animaliak ezagutuko ditugu: behiak, astoa, txerriak, ahuntzak, oiloak, untxiak... Bestetik, baserriaren ingurua ezagutuko dugu, basoa eta landare ezberdinak. Dibertigarria izango dela uste dut!

Baina bi gauzak kezkatzen naute gehien.

1. Zer jarriko ote digute otorduetan, hau da, gosaltzeko, hamaiketakorako, bazkaltzeko, askaltzeko eta afaltzeko? Goxoa egongo da? Espero dut baietz!
2. Kanpoan lo egin izan dudanean, beti nire gurasoekin egon naiz. Eta orain, lehenengo aldiz, lagunekin lo egingo dut. Eta horregatik urduri nagoen arren, ziur nago irakasleek lagunduko digutela lasaitzen eta ondo egingo dugula lo.

Beno, barnetegitik bueltatzen naizenean kontatuko dizut zer egin dugun, eta zer moduz pasatu dugun.

Aio!!!

Behin testua irakurrita, bilatu galderen erantzuna testuan, eta azpimarratu. Ondoren erantzun galderak ikasi dugun bezala.

1. Nora joango da?

.....

2. Zergatik dago urduri?

.....

.....

3. Noiz aterako dira? Eta zein ordutan egon behar dute eskolan?

.....

.....

4. Zer eramango du maletan?

.....

.....

5. Zer egingo dute barnetegian?

.....

.....

6. Zerk kezkutzen du?

.....

.....

7. Eta zu, zerbaitek kezkutzen zaitu?

.....